



## GIPUZKOAKO MENDIZALE FEDERAZIOA

Anoeta 5, Donostia 943 46 14 40

[gmf-administrazioa@kirolak.net](mailto:gmf-administrazioa@kirolak.net)

# XVII ARGAZKI LEHIAKETA MENDIKO JARDUERAK 2022KO EGUTEGIA

Gipuzkoako Mendizale Federaziotik aurten argazki lehiaketan parte hartzera gonbidatu nahi zaituztegu. Lehiaketa honen helburua da gizartea kontzientziaztea mendiek duten aberastasunaz eta bertako jardueren aniztasunaz.

Argazki lehiaketa honetan aukeratutako lanak Gipuzkoako Mendizale Federazioko 2022ko egutegian agertuko dira. Lan honek gure mendietako balio naturalekiko kontzientzia areagotu nahi du.

**Gaia:** Bidezidorrak, eskalada, espeleologia, ingurumena, emakumea eta mendia, alpinismoa (pirinioak), eskola-kirola, ibilaldi nordikoa, alpinismoa (nazioartekoa), eskia, mendiko lasterketak.

**Partaideak:** mendizaleak, argazkilariak, afizionatuak, etab.

**Modalitatea:** Digitala formato horizontalean 2 X 3 gutxi gorabehera, alde txikiena (altuera) 1.890 PX gutxienez eta 300 PP errezoluzioarekin. 15 MB tamaina minimoarekin eta TIFF artxiboan.

**Lan kopurua:** partehartzaile bakoitzeko lau argazki aurkeztu ditzazke, inongo lehiaketan saritu gabeak.

**Aurkezpena:** argazkiekin batera, egilearen datuak aurkeztu beharko dira: izen-abizenak, helbidea, e-maila eta telefonoa. Honi argazkiaren deskribapena gehituko zaio (tokia, garaia, etab)

**Nora bidali:** lanak postaz, WeTransfer ([gmf-administrazioa@kirolak.net](mailto:gmf-administrazioa@kirolak.net)) edo bertara eramanez hurrengo helbidean aurkeztuko dira:

Gipuzkoako Mendizale Federazioa. Argazki lehiaketa  
Kirol Etxea. Anoeta pasealekua, 5  
20014 Donostia.

**Onarpen epea:** ekainaren 15etik uztailaren 15era.

**Erabakia:** 2021eko irailaren 15a baino lehen erabakiko da. Epamahaia antolatzaileek izendatuko dute eta bere erabakia aldaezina izando da.


**Sariak:** 12 argazki sarituko dira. Aukeratutako argazkiak Gipuzkoako mendizale Federazioko 2022ko egutegian agertuko dira.

GMF egutegiko saridunek 10 egutegi jasoko dituzte. Egutegiak Federazioaren egoitzan jasoko dira.

**Itzultzea:** argazki digitalen CD-ak, bai sarituak nola ez sarituak, ez dira itzuliko.

**Oharrak:**

- Gipuzkoako Mendizale Federazioa izango da argazki irabazleen jabea. Kopia egin eta hedatzeko eskubidea izango du antolaketak, beti ere egilearen izena aipatuz, eta eskubide horiengatik irabazleak ez du sariaz gain beste ordainsaririk jasoko.
- Hautatu bai baina saririk jaso ez dituzten argazkien jabeek baimena emango diote antolaketari argazkiak bi urteren epean erabili ahal izateko.
- Antolatzaileak ez dira kargu egiten gerta daitekeen edozein arazoren gainean.
- Hemen aipatu ez den ezusteko bat balego, antolaketak erabakiko luke, inongo apelazio aukerarik gabe.



**Sin.: Koldo Sansinenea  
PRESIDENTEA**